

ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA HIRI JASANGARRIAN



IKASLEEN ONDORIOAK,
PROPOSAMENAK ETA
KONPROMISOAK



Udalako Ingurumen Eskola
2023ko maiatza

Arratsalde on!

Gaur hemen gaudenok ikasleak gara Arrasateko Herri Eskolan, Institutuan eta Arizmendi Ikastolan (Gazteluondo, Arimazubi, Santa Teresa eta Gaztelupe guneeetan). Ikastetxe horietako 6-18 urte bitarteko ikasle guztiok jardun dugu aurtengo ikasturtean Eskolako Agenda 2030 lantzen.

Eskolako Agenda 2030aren bitartez saiatzen ari gara Arrasatek aurrera egin dezan jasangarritasunaren bidean, eta gure esku dagoena egiten.

2015. urtean egin zen Garapen Jasangarriari buruzko Goibileran, Nazio Batuen Erakundeko estatu kideek 2030erako Garapen Jasangarriko Agenda onartu zuten. Horrek Garapen Jasangarriko 17 helburu biltzen ditu, pobrezia deuseztatzeko, desberdintasuna eta injustiziaren kontra borrokatzeko eta klima aldaketari aurre egiteko.

Gure eskoletan Eskola Agenda 2030 lantzen ari gara eta ikasturte honetan, bereziki, 7. eta 11. helburuak landu ditugu: energia eta komunitate jasangarriak.

Kurtso honetan asko izan dira egindako lanak eta aktibitateak, bai gure zentroetan, bai Ingurumen Eskolan, bai herriko hainbat txokotan, baina, zuek ideia bat egiteko, adibide gisa, hemen zerrendatzen ditugu batzuk:

- Energia gaia aztertu dugu, energia berriztagarri mota batzuk ezagutu ditugu eta baloratu dugu horiek dituzten onurak ingurumenerako eta gure herrirako.
- Led argia eta argi arruntak konparatu ditugu.
- Hainbat PROI egin ditugu hiri jasangarria eta energia gaiarekin lotutakoak.



- Eskolan patio jasangarriak diseinatzen hasi gara.
- Txoko berdea osatu dugu eta bertan ikasle eta irakasle guztiei proiektuan egindakoaren berri eman diegu kurtsoan zehar.
- Gure herria jasangarriagoa bihurtzeko hainbat ekintza egin ditugu: errekek garbitu ditugu, Monterron eta Santa Barbara garbitu ditugu,....
- Kulturolara eta Mankomunitatera irteerak egin ditugu plaka fotovoltaikoak ikusteko eta energia berriztagarriak nola sortzen diren bertatik ezagutzeko.



- Ingurumen Eskolara irteerak egin ditugu eta bertan energia gaia sakon aztertu dugu: zertarako erabiltzen dugun energia, Arrasaten erabiltzen ditugun energia iturriak, jatorri fosila duen energiak dauzkan mugak eta eragiten duen kutsadura arazoak, eta, baita ere, energia berriztagarrien abantailak eta arriskuak.
- Ideia batzuk izan ditugu gure herria iraunkorragoa eta atseginagoa egingo duten asmakizun batzuk sortzeko; adibidez, ahotsarekin funtzionatzen duen igogailu bat.
- Eskolako mapa batean berogailuak eta argiak kokatu ditugu, zenbatu ditugu eta aztertu dugu ea kontsumo horiek jasangarriak diren.
- Gure eskoletako energia kontsumoak aztertu ondoren hainbat neurri hartu ditugu: aparatu elektrikoak erabiltzen ez direnean desentxufatuta egotea, berogailuen tenperatura beti kontrolatuta egotea, argiak behar ez diren toki batzuetatik kentzea,...

- Gure herriko kaleko argiak aztertu ditugu, eta ikusi dugu kasu batzuetan ez direla egokienak gure iritziz, kale edo espaloia baino zerua gehiago argiztatzeko dutelako.
- Hainbat energia iturri berriztagarriren lanketa egin dugu: haize erroten funtzionamendua ikusi dugu, eta zentral hidroelektrikoen funtzionamendua ere bideo batekin.
- Gure herrian aurten landu den beste proiektu batean parte hartu dugu: Ikastetxe Klik, eta ekintza bat baino gehiago egin dugu gure eskoletan, ura, gasa eta argia aurrezteko; horretarako, semaforoak jarri ditugu, argia neurtu eta argi batzuk kendu; iturrietan bridak jarri ditugu ur gutxiago kontsumitzeko, geletako tenperatura ere neurtu dugu gehiegi ez kontsumitzeko eta tenperaturen mapa egin dugu.



Ikasle guztiok hartu dugu parte orain aurkeztuko dizkizuegun ondorioak, proposamenak eta konpromisoak prestatzen. Hemen gaudenok ikasle horien guztien ordezkariak gara, eta gure helburua da Arrasate herri jasangarriagoa bihurtzea.

Energiarekin loturiko aspektu asko aztertu ditugu Arrasaten, horietariko bat mugikortasunarekin eta trafikoarekin loturikoa izan da. Gure herrian oraindik arazo handia dugu trafikoarekin; energia kontsumoa oso altua delako.

MUGIKORTASUNA AZTERTZERAKOAN

ATARATAKO ONDORIOAK:

- Garraioa da energia gehien erabiltzen duen sektorea Arrasaten.
- Mugikortasun handia dago, furgoneta, kamioi eta autoena.
- Motordun garraiobide gehienek gasolioa erabiltzen dute (erregai fosila).
- Kaleetan jendea batez ere oinez mugitzen da, gero eta gehiago bizikletan eta patinetean, baina bizikletaz ibiltzea oso arriskutsua da oraindik hainbeste kotxeekin.
- Herriko edo inguruko lantegietara joateko, herritarrek beren kotxeak erabiltzen dituzte; gehienetan auto bakoitzean pertsona bat doa; bakoitzak bere kotxea erabiltzen du.
- Herriko urbanoan pertsona gutxi joaten da; garraio publikoa indartzeko ia ez da kanpainarik egiten; kotxerik gabeko eguna ospatzeko ia ez da ezer egin azken urteetan, eta indar gehiago jarri behar dira kanpaina horietan.

EKINTZA PROPOSAMENAK, AIPATUTAKOARI AURRE EGITEKO:

1. Herri barnean garraio publikoa indartu, prezioak aztertu eta herritarrei kontsultatu ea zergatik ez duten erabiltzen garraio kolektibo hori.
2. Herrian bidegorri sarea osatu, bizikleten eta patineteen erabilera handitzeko; erdigunetik Musakola auzora edo Otalora Lizentziaduna kalean zehar, esate baterako.
3. Espalioen zabalera handitu, herrian oinez egiten diren mugimenduak handitzeko eta atseginagoak izateko, eta kotxeen presentzia gutxitu; adibidez, Gipuzkoako etorbidean, Otalora Lizentziaduna kalean edo Nafarroa etorbidean zehar.

IKASLEOK GURE KONPROMISOAK HARTZEN DITUGU:

- Bide motzak oinez eta bizikletaz egingo ditugu.
- Gure etxean garraio publikoaren erabilera egitearen aldeko jarrera erakutsiko dugu.
- Entrenamenduetara joateko, kotxe ahalik eta gutxien erabiliko dugu.
- Gurasoak animatuko ditugu autoak konpartitzera eta autobusa erabiltzera.



Energia gaia aztertzerakoan oso interesgarria iruditu zaigu gure kontsumoan zer energia mota erabiltzen dugun jakitea.

Debagoienean erabiltzen dugun energia gehiena (% 95) erregai fosiletatik dator. Erregai fosilen erabilera handiak eragin du gure planetaren tenperatura igotzea eta horrek klima aldatzea eragin du, eta erregai fosilak kutsakorrak izateaz gain, ez dira berriztagarriak.

Gure azterketekin jakin dugu gure bailaran sortzen dugun energia berriztagarria (guztiaren % 5), batez ere Elgeako parke eolikoak sortzen du, baita ere Olateko Zentral hidroelektrikoak (Oñati) eta eraikin batzuetako eguzki plaka fotovoltaikoek.

Jakin dugu Arrasateko eraikin publiko batzuetan energia berriztagarriak daudela: iturripe, Abaroa, Varkape, Bedoñabe, Kulturola, Mankomunitatea eta abar.



GURE ENERGIA KONTSUMOAREN INGURUKO ONDORIOAK:

- Herritarrak ohartu behar dira energiaren erabilerak ingurumenean sortzen dituen inpaktuez, eta inplikatu behar dira konponbideetan.
- Ikasi behar dugu energia gutxiagorekin bizitzen, eta ezinbestekoa da energia eraginkortasunez erabiltzea.
- Ez gaude oso kontzientziatuta etxeetan argiaren kontsumoarekin, eta azpimarratzen dugu energiaren kontsumoa uste baino handiagoa dela.

ENERGIAREN KONTSUMOAREKIN LOTUTAKO PROPOSAMENAK:

4. Oraindik beharrezkoak dira herriarentzat informazio, komunikazio eta sentsibilizazio kanpainak.
5. Eraikin publikoetan energiaren kontsumoa gutxitzeko sistemak erabili eta herritarren artean ere sistema horiek bultzatu.
6. Udal eraikinetan energia iturri berriztagarrien instalazio gehiago jarri daitezkeen aztertu.
7. Udal eraikinetan, eta bereziki, Ingurumen Eskolan, berokuntzarako energia iturri berriztagarriak erabili ahal diren aztertu eta horrela eraikinaren etiketa energetikoa hobetu.
8. Klima aldaketaren eragina murrizteko kaleetan zuhaitz gehiago landatzea freskotasuna bermatzeko, adibidez San Andres auzoan, Erguinen, Makatzenan, Musakolan...
9. Berotegi efektuko gasen isurketa konpentsatzeko, herriko mendietan bertako basoa errekuperatzeko, zuhaitzak landatu eta dauden basoak ongi zaindu.
10. Herritarrak informatzea energiaren krisiaren inguruan, eta sentsibilizatzea erabilera arduratsuari buruz.



GURE JARRERAK ALDATZEKO KONPROMISOAK:

- Etxekoei azaltzea energiaren kontsumoa murrizteak zein nolako garrantzia duen.
- Bai eskolan, bai etxean, berogailua piztuta dagoenean, ez dugu irekiko leihorik, eta beroak bagaude, berogailua itzaliko dugu.
- Saiatuko gara erabiltzen pilarik behar ez duten aparatuek.

HERRIKO ARGITERIA AZTERTU ONDORENGO

KONKLUSIOAK:

- Farola batzuk oso altu daude, eta espaloietara eta errepidera argi gutxi heltzen da.
- Farola batzuk zikin egoten dira eta argi gutxi ematen dute.
- Farolen kokapena batzuetan ez da egokiena; farola batzuk zuhaitz artean daudenez, argia galtzen da.
- Batzuetan farolak piztuta daude oraindik argi naturala dagoenean.

ARAZO HORIEI KONPONBIDEA EMATEKO

PROPOSAMENAK:

11. Farolak piztuta egoteko ordutegia aztertu eta farolak itzaltzeko ordua finkatzerakoan, urteko garaiak bereiztu (uda-negua).
12. Farolak garbi mantendu, eta horrela gastu berdinarekin argi gehiago izango dugu.
13. Herriko argiteria publikoa berriztatzen jarraitzea, kutsadura luminikoa sortzen duten farola motak aldatu eta asko kontsumitzen dituzten lanparak ordezkatu; adibidez, herriko plazan, Zerkaosteta kalean, Garibai etorbidean, Biterin, Gernika pasealekuan...



KONPONBIDERAKO GURE KONPROMISOAK:

- Ez ditugu piztuko etxeko eta ikastetxeko argiak, behar-beharrezkoa ez bada.
- Herriko farolak errespetatuko ditugu eta ez ditugu apurtuko.
- Ikastetxe eta etxeko elektrizitate aparatuak ondo erabiliko ditugu eta behar ez ditugunean guztiz itzalita mantenduko ditugu.
- Argi naturala dagoenean hura aprobetxatzea.

Bukatzeko, argi dugu bizitzeko herri jasangarri eta atsegin bat gura dugula eta horretan prest gaude laguntzeko, denon artean gauza asko hobetu dezakegu eta. Hurrengo urteetan ere gure lanean jarraituko dugu. Espero dugu gure ekarpenak lagungarriak izatea. **ESKERRIK ASKO!!**